


SARBIDEAK



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

CUADRILLA DE VITORIA-GASTEIZ
VITORIA-GASTEIZ ESKUALDEA

CUADRILLA DE SALVATIERRA
AGURAINO ESKUALDEA

ATM-FAM

112 SOS DEIAK

KANPEZUKO-ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA
KUADRILLA DE CAMPEZO-MONTAÑA ALAVESA

i

Santikurutze Kanpezuko turismo bulegoa:
945 405 424

Aguraingo turismo bulegoa:
945 312 535

Vitoria-Gasteizko turismo bulegoa:
945 161 598

IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: GR 38 3. Etapa Albaina-Okina-Estibaliz

Albaina eta Estibaliz artean, GR 38ak, interes natural handiko bi gune zeharkatzen ditu, Uda ibaiaren haitzarrea eta Gasteizko Mendi Garaiak. Etapa hau Estibalizko santutegiaren ondoan amaitzen da, Arabako altxor arkitektoniko garrantzitsuenetakoa.



0 km.- ALBAINA. Etapa Albainako enparantzatik abiatzen da, Sasetarantz, bidean Parizako herrigunea zeharkatuz. Trebiñoko hiru herrixka hauek lotzen dituen bidea paisaia lehor batetik igarotzen da, tarteka arte eta erkametzak azaltzen dituzten labore lurren artean. Uda Ibaiaren ur korronteak ureztatzen du paisai idor hau, mendeetan zehar Trebiñoko eroten gurpilak martxan jarri zituen ur korronte berak. Ur korronte hau izan zen Uda ibaiaren haitzarrea ezaguna sortu zuena ere, Sáseta eta Okina artean zeharkatzeko aukera izango dugun haitzarrea ezin ederragoa, hain zuzen. Igarobide natural honek, haitz artean historiaurreko aztarnategi garrantzitsua ezkutatzen du, Mendaldiako aztarnategia, alegia, eta landaretza artean milaka urte dituzten haginen basoa gordetarik du.

10 km.- OKINA. Okina zeharkatu eta errepidearen eskuinaldean dauden larren mugatik egingo dugu aurrera, harik eta basoan sartu arte. Bidea zuhaitzen itzalpean aurrera egiten du, tarteka hesiren bat edo beste zeharkatu beharko dugularik. Halako hesi baten ondoan aurkituko dugu Vitoria-Gasteizko mugan gaudela adieraziko digun mugarietako bat. Hemen hasten da Gasteizko Mendi Garaietan behera eramango gaituen bide atsegina, pagoen itzalpeaz gozatzeko aukera emango diguna. Ibarbidearen beheko aldera heltzean erreka batzuk zeharkatu

eta erkamezti batzuetatik pasatuko gara, harik eta jada paisaia idorrago baten erdian ur-putzu batekin topo egin arte. Baina aurretik gure ibilbidea GR 25arekin -Arabako Lautadako Birarekin- gurutzatuko da. Ur-putzuaren parean, bidean aurrera egin aurretik, Arabako lautadaren ikuspegi ederraz gozatzeko tartetxo bat hartuko dugu. Han aurrean, muintxo batean, gailentzen da Estibalizko santutegia, etapa honen helburua. Pistan behera egin eta Vasco-Nabarro trenbidea zeharkatu ostean Gasteizetik Lizarrara doan errepidera helduko gara. Errepidea zeharkatu eta pixka bat ezkerrera abiatzen da zuzenean, zuhaitzen itzalpean, santutegiraino eramango gaituen "La Avenida" izeneko pasealekua.

23 km.- ESTIBALIZ. Estibalizko santutegia Euskadiko erdi aroko arkitektura adibiderik onenetakoa da. XII. mendean eraiki zuten gaur egunera heldu den tenplua, aurretik monasterio zaharra egon zen leku berean. Mende honetakoa da baita monasterioaren barruan gordetzen den Estibalizko Ama Birjinaren taila, Arabako zaindariaren irudi ederra, alegia

MIDE



23,2 Km



400 m



6 h 15'

Gogortasuna



1

Severidad

Orientazioa



2

Orientación

Desplazamendua



2

Desplazamiento

Esfortua



4

Esfuerzo

MIDE ibilbideen gogortasun teknika zein fisiko baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna




Desplazamenduaren zailtasuna



Behar den ahalegin maila

PROFILA



IBILBIDE-ORRIA: GR 38 3. Etapa Albaina-Okina-Estibaliz

BUKAERA



HASIERA

ESTIBALIZKO SANTUTEGIA
Estibalizko geraleku zaharra
V-Navarro Bide berdea
VILLAFRANCA. Donejakue B.
Desbiderapena
ANDOLLU. A-132 errepidea
V-Navarro Bide berdea

Ur-putzua

Bidegurutze. GR 25 esk.
GR 25
Desbiderapena

Bidegurutzea

Desbiderapena
Uda Ibaia
Uda Ibaia
Fuente de la Salud ezk.

Uda Ibaia
OKINA

Okinako errota

Arangatxa erreka

El Roblico erreka
Bidebanatzea
Santa Luzia erreka
ŞAŞETA
Bidegurutze. Uda Ibaia

Desbiderapena

Bidegurutzea

Bidegurutzea
PARIZA
Errekastoia
Bidegurutzea. 'El Mojón'

Bidegurutzea
BU-741 errepidea. Uda Ibaia
ALBAINA. Bidebanatzea



IBILTARIAREN DEKALOGOA

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin alde aurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako krema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 112 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu